



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

**OHARRA:** Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-  
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea  
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak  
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

### Esker onez

1980ko Ekainaren 11n, BVE ultra-  
eskuindar erakunde armatuak gure  
seme eta anaia Joxemiel Etxeberria  
Alvarez Naparra/Bakunin euskal  
errefuxiatu politikoa bahitu eta de-  
sagertarazi zuen. 1980ko uztailaren  
4an Deia egunkariari bidalitako ko-  
munikatu batean Joxemielen hilketa  
bere gain hartu zuen. Harrezkero, ez  
dugu haren berririk izan. Garai har-  
tako gerra zikinaren beste ekintza  
bat burutu zen.

Azken 20 urte hauetan, sufrimen-  
duz beterikoak, gurekin, gure albo-  
an, bertan izan zaituztegun guztioi,  
pertsonek ala erakunde, mila esker.  
Mila esker muxu xume horrengatik,  
besarkada zintzo eta maitasunez  
isuritako hitz lasaigarri horrengatik.  
Iragan igandean ere, Joxemieli egini-  
ko omenaldian horrela jaso geni-  
tuen. Bihotz-bihotzetik, mila esker.

Mingarria da zure semea, anaia,  
laguna... bahitu eta desagertarazi  
dutenean, zer gertatu zaion eta egin  
ahal izan diotena bururatzea (hor  
dugu Joxi eta Joxeani egindakoaren  
adibidea); bere gorpuari bere lurtean  
merezitako atsedena emateko ezina  
izatea; inolako berririk gabe, inolako  
justiziarik gabe bizitzea, egunez  
egun. Baina itxaropena txikia bada  
ere, itxaropena da. Eta guk ez dugu  
etsiko. Aurrera joko dugu. Beste ho-  
gei urtez izanda ere. Joxemielek me-  
rezi du eta. Baita Herri honek ere.

Joxemieli bezala, bost mende lu-  
zez Herri honen askatasunaren alde-  
ko borrokan eroritako emakume eta  
gizon guztiei egin diezaiekegun ome-  
naldirik onena garaipena da, gure  
Herria bere etorkizunaren jaun eta  
jabe izatea alegia. **Joxemiel Etxeberria**  
(Naparraren senideen izenean) •  
IRUÑEA

### Gauzak garbi

EHk eta PSOEek PNVri eskatzen diote  
argitu dezala zein helburu dituen,  
soberanismoa edo autonomismoa;  
PPk eskatzen dio argitu dezala nore-  
kin ibili behar duen, biolentoeekin  
edo demokratik; eta Egibarrek  
EHri argiago eduki behar dituztela  
gauzak atentatuaren gainean beren  
iritziak azaltzen dituztenean.

Gaur egun, aipatu ditudan alder-  
dietatik, bat baino gehiago dira krisi-  
an daudenak: denok dakigu PSOE  
egoera zaila ari dela pasatzen; baina  
ez da bakarria. PNV ere oso egoera la-  
rrian dabil.

Euskal Herrian dagoen arazoaren  
inguruan, PP eta PSOEek garbi dau-  
kate zer nahi duten. EHk ere garbi  
dauka zer nahi duen, eta agian za-  
lantzak izango ditu nolatu hori bideratzerakoan. Baina PNVk  
ez du ematen garbi daukanik zer  
nahi duen, eta gutxiago, nola.

PNVk garbi eduki behar du zer  
den, alderdi abertzale bat edo auto-  
nomista. Eta zer den argitzen duene-  
an, bere helburuak definitu behar di-  
tu, eta helburu horiek nolatu hori be-  
har dituen.

Orain dela gutxi arte, PNVk auto-  
nomismoa defendatzen zuen, eta  
nahiko ondo konpontzen zen alderdi  
espainolekin. Bitarte horretan bazen  
Euskal Herrian beste mugimendu  
bat (HB), denen aldetik baztertua  
zegoena (baita PNVren aldetik ere)  
soberanismoa defendatzen zuelako.

PNVk zerbait aldatzeko itxura egin  
duenean, Euskal herriko beste talde  
abertzaleekin soberanismoa lortzeko  
bidean, Espainiako indar nagusiak  
gainera etorri zaizkio, eta berriro le-  
hengo bidera itzultzeko pausoak  
ematen hasi da.

Aldaketa horren aitzakia biolen-

tzia ipintzen dute, baina hori ez da  
benetako arrazoia. Biderako lagun  
egokiak aukeratu behar dira. Eta  
egoera txarretan ezagutzen dira be-  
netako lagunak.

Ez naiz PNVkoa, ezta beste alder-  
dietakoa ere, herritar arrunt bat bes-  
terik ez naiz. Baina egoerak kezka-  
tzen nau, eta gauzek aldatu egin be-  
har dute. **Antton Elorza Diez**,  
AZKOITIA (GIPUZKOA)

### Nafarroako demokratik azken eraso

Oraingo honetan euskara izan da de-  
mokrata eta integratzaileen gorroto-  
aren biktima. Aspaldi nazionalista  
espainiarrek hartutako ildo estrate-  
gikoari jarraituz, euskaldunoi min  
gehien egiten digun lekuan ipini di-  
tuzte haien indar guztiak.

Horrela bakarrik uler dezaket hain  
itzela den akats politiko-estrategiko  
hau. Nafarroako gizartearen senti-  
menduen aurkako erabaki hau an-  
tzua suertatuko zaie; Miguel Sanzen  
zorixarrerako, haurren matrikula-  
zioak euskal ereduaren gora egin eta  
egingo du, euskara erabiliko da. Ha-  
la ere, euskara kaleetan egitea gala-  
raziko duen lege bat noiz aterako  
duen zain naiz, *caudilloaren* garai  
onenetan bezala.

Harritzekoa da ikustea nolatu eraso  
dakiokeen hain gogotsu eta hain  
maltzur ezagutzen ez den gauza bati.  
Erantzuna erraza da: gorrotoa eta ez-  
jakintasuna. Ezjakintasunak asko-  
tan eramaten gaitu okerreko bidetik,  
gehienetan. Lehenengo dimisioak  
ikusita zorionez, eta gainera bere  
alderdiak izendatutako pertsona-  
nak. Eskerrak bere alderdiko guz-  
tiak eta nafarrak bera bezalakoak ez  
diren. **Ion Elizalde** • HONDARRIBIA  
(GIPUZKOA)

### galdeiozu...

**Rafa Diez**

• LABEKO IDAZKARI NAGUSIA •

**Ez al zaizu iruditzen  
langileen mugimendua oso  
ahul dagoela, egoera  
politikoaren menpean balego  
bezala?**

Josu Alberdi [Donostia]

■ **IRUDI HORI OSO** partziala da.  
Sindikalgintzan gertatzen dena  
eta ezker politiko eta sozialean  
gertatzen dena aztertu behar-  
koa da. Onartzekoa da neoliberal-  
ismoaren aurrean sindikalgint-  
zak eta langile mugimenduak  
atzerapausoak izan dituztela, bai-  
na esan beharra dago Europa oso-  
an 35 ordu eta soldata sozialaren  
alde egindako sektore arteko gre-  
ba orokor bakarria Euskal Herri-  
koa izan dela. Guk ikusten dugu  
euskal sindikalgintza eraberritze  
prozesu batean sarturik dagoela,  
eta baikorrak gara euskal sindi-  
kalgintzak izan beharko duen ze-  
reginari eta etorkizunari begira.  
Agian, beste tresna organizatibo-  
en egoera (alderdi eta mugimendu  
soziala) sindikalgintzarena baino  
kezkarriagoa da.

**Ekainaren 20tik aurrera  
Alberto Frias**

• EGUZKI-KO BOZERAMAILEA

izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.  
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

